

OÑATIKO UDALA	
Eregistro Data	
2013 MAR 19	
SARRERA	IRTEERA
557	

Oñatiko Bilduko Udal Taldeak Osoko Bilkurak bere egin dezan honoko moziua aurkezten du:

“BOTIKEN BATERAKO ORDAINKETA NEURRIAREN INGURUAN

Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzko 16/2012 Errege Dekretuaren bidez, Mariano Rajoyren gobernuak herritar guztientzako osasun-sistema publiko, unibertsal eta doakoaren eredia apurtzen duen neurri bat ezarri zuen, botiken koordainketarena. Era horretara, iazko uztailaren 1az geroztik, jardunean dauden pertsonak behartuta daude botiken % 40 eta % 60 bitarte ordaintzera, errentaren arabera, eta, halaber, asistentzia sanitario normalizatutik kanpo utzi ditu espainiar estatuan egoera irregularrean dauden hainbat atzerritar.

Gure ustez, osasunaren alorreko baterako ordainketa, botikak eskuratzeko finkatuta genuen eredia aldatuz, osasun sistema publikoa deuseztatze bidean neurri bat gehiago da, eta guztiz bidegabekia, sektore ahulenak zigortzen dituelako bereziki.

Euskal Autonomia Erkidegoan, osasunaren alorrean, baterako ordainketa “progresiboki” ezartzeko Eusko Jaurlaritzaren iragarpenaren aurrean, moziio hau aurkezten dugu, Udaltzaren onartzeko:

1. Oñatiko Osoko Bilkurak osasuna babesteko eskubidearen, irisgarritasunaren, unibertsaltasunaren, ekitatearen eta kalitatearen oinarriko printzipioek hala nola osasun-arreta osoaren doakotasunaren printzipioak zuzentzen duten osasun sistema publikoarekiko bere konpromisoa adierazi nahi du.
2. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio irisgarritasun, unibertsaltasun eta doakotasun irizpideak aintzat hartu eta sistema publikoa sendotu dezala, osasuna babesteko eskubidea, pertsona ororena eta, bereziki, krisiaren ondorioak gehien pairatzen dituzten kolektibo ahulena, bermatzeko, haien egoera ekonomikoa eta soziala edozein delarik ere.
3. Oñatiko Osoko Bilkurak gaitzetsi egiten ditu Rajoyren gobernuak osasun gaietan aplikatutako murrizketak, botiken baterako ordainketaren neurria, kasu, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio antolatu ditzala behar diren bide juridikoak eta ekonomikoak Espainiako Gobernuak sistema berriz zentralizatzeko eta pribatizatzeko xedearekin inposatutako neurriak ez aplikatzeko.
4. Alde horretatik, Oñatiko Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio inposaturiko murrizketei aurre egiteko konpentsazio-funts bat sor dezala, eta 2013ko aurrekontuetan jaso dezala, eta gauzatutako konpentsazioen zenbatekoak kupotik deskonta ditzala.”

Oñatin, 2013ko martxoaren 19an.-